2000-IV-19
Número **13.** zenbakia

ELA

astekaria

# MAIATZAREN LEHENA: 35 ORDUAK LORTU ARTE




Maiatzaren Lehena langileontzat jaia eta mobilizazioa uztartzen dituen eguna da. Horregatik, aurten ere 35 orduko lan-astea eta soldata soziala ditugu helburu nagusiak, ELArekin batera LAB, EHNE, ESK eta EILAS sindikatuek aldarrikatuko ditugunak hain zuzen. Eguna Bilboko Jesusen Bihotzean 11.30etan abiatuko den manifestazioarekin hasiko da. Aipatutako erakundeen buruek San Nikolas eleizaren aurrean emango duten mitinaren ostean, berriz, ELAko kideok Erakustazokan bilduko gara bazkaritara. Han senide eta lagunekin gozatzeko modua izango dugu: zer jana, dantzarako musika, eta haurrentzako jolasak ere prestatu baitituzte.

Maiatzeko egun handi honetan ezin duzu huts egin. Zatoz Bilbora!

## 1º DE MAYO

## Por las 35 horas y el salario social

Llega el 1 de Mayo, día de fiesta y reivindicación para la clase trabajadora. Una vez más, ELA, junto con LAB, EHNE, ESK y STEE vamos a exigir la jornada de 35 horas y un salario social para las personas que carecen de ingresos dignos. El día comenzará con la manifestación que sale de la plaza del Sagrado Corazón a las 11.30 horas. Tras bajar por la Gran Vía, habrá un mítin ante la iglesia de San Nicolás, en el Arenal, en el que intervendrán los y las dirigentes de las organizaciones citadas. Posteriormente, los afiliados y afiliadas y el conjunto de la militancia de ELA nos reuniremos en la festiva comida de la Feria de Muestras: como otros años, no faltarán la música ni los juegos que se han preparado para el público más joven.

El 1 de Mayo no puedes faltar. ¡Ven a Bilbao!

**11:30 horas. Sagrado Corazón. Bilbao**

**MANIFESTACIÓN / MANIFESTAZIOA**

Agiria Documento

## MANIFESTU SINDIKALA

# 2000ko Aberri Eguna

Aberri Eguna ELA, LAB, EHNE, ELB, ESK, STEE/EILAS eta HIRU erakunde sindikalentzat esparru desberdinetan –politika, erakundeak, kultura, gizartea, ekonomia– gure herri-nortasuna garatzeko konpromisoa berresteko aukera da. Halaber, gure herria bere egitura instituzionala askatasunez erabakitzeko eskubidea duen nor dela aintzat har dezaten eskatzeko unea ere bada. Aberri Egunak, gainera, zein egoeratan ospatzen den aztertzea eskatzen digu, egoera horren funtsezko ezaugarriak zehaztu eta, behar izanez gero, gure ekimena aipatutako helburu haiek lortzeko moldatzearren.

Bistan da aurtengo Aberri Egunaren testuingurua eta iazkoa ez direla berdinak. 1999an egoeran "itxaropenerako elementu berriak" ageri zirela genioen: luzaz elkarrengandik urrun, eta are, aurkako izan ziren indarrak elkarrizketari ekin eta akordioak lortzen hasiak ziren; agortutako aro politiko batentzako aukera berria itxuratzen ari zen, eta gure gizarteko zati handi batentzat Lizarra-Garazi erresistentzia edota konformismoaren garaiak gainditzeko oinarri bilakatu zen. ETAk su-eten aldebateko eta mugagabea deitu izanak itxaropena ematen zion euskal gizarteari, eta Lizarra-Garaziko adierazpenaren inguruan hasitako prozesuak garatzeko giro egokia zekarren.

Egiaztapen positibo hauekin batera estatuen eta indar zentralisten jarrera mugigaitza aipatzen genuen, baita egoera berriari erantzuteko agertzen zuten gaitasun eza eta euskal gizartean sumina, zatiketa eta liskarra hedatzeko ahalegina ere.

Urtebete igaro delarik, egoera zailagoa da: estatuak eta indar zentralistek uko egiten diote elkarrizketari eta konponbide demokratikoak lortzeko aukerari. Gainera, areagotu egin dute irtenbide horien bila dabiltzanen aurkako erasoa, eta errepresioa eta gizarteko sumina areagotuz erantzuten dute; jokabide honen adierazpen bereziki larria da indarrean dagoen espetxe-politika, legeria eta gizabide ororen aurkakoa. Bestalde, hasitako prozesua moteltzen duten desadostasunak eta zailtasunak sortu dira Lizarra-Garaziko adierazpenarekin bat egin duten indarren artean. Su-etenaren hausturak eta beste ekintza bortitz batzuren jarraipenak osatzen dute, azkenik, egoera zail hori.

Horrek guztiak bake eta konponbide demokratikozko prozesuaren haserarekin fidaturik ziren hainbat herritar eta sektoreren itxaropena ahuldu, eta are, honda dezake. Baina erakunde sozial eta politikoei dagokie era honetako prozesu batean beharrezko perspektibari eustea, eta gizarteak zailtasun nahiz oztopoei eman beharreko erantzunaren aitzindari izatea. Une erabakigarri hau aukera bilakatu eta oinarri zabaleko proposamenak lantzeko gai izan behar dugu, egungo egoeraren mugak gainditurik dinamika berri batera eramango gaituzten proposamenak, non Euskal Herriko herritarren borondatea funtsezkoa izango den.

Halere, ez dezakegu ibilitako bidea ahaz. Oso urrats garrantzitsuak egin ditugu, eta horiek aintzat hartu beharra dago. Batetik, Euskal Herriko iparraldean departamenduaren eta euskara hizkuntza ofizialtzat



onartzearen aldeko aldarrikapenak gero eta hedatuago daude; bestetik, hegoaldean indar soberanistek amaitutzat eman dute indarra kentzen zien bakartze eta inkomunikazio aroa. Ondorioz, adostasunak eta lankidetza prozesuak finkatu dira –hau, noski, hamalau hilabetetan izan den aldebateko distentsio egoerak erraztu egin du–, azterketa ildoak zein lan-esparruak bateratzen hasi dira eta, batez ere, eztabaidaren erdigunean kokatu dira euskal gatazkaren sakoneko arazo politikoa eta Lizarra-Garaziko adierazpenak eginiko konponbide demokratikorako proposamena.

Estatuen eta indar mugigaitzen erantzuna, ezkorra izateaz gainera, argigarria gertatu da. Urtetan bakearen eta demokraziaren bidetik edozein proiektu politikoren alde egitea zilegi zela esan arren, orain ez dira elkarrizketarako deia onartzeko gauza izan, ideia eta proposamenak era demokratikoan eztabaidatzeari uko egin diote, eta beren jardun politikoaren zein hedabide sistema erraldoien zati handi bat Lizarra-Garaziko proposamena ezkutatu eta nahasteko erabili dute. Gainera, proposamen horri eusten dioten indarrak deskalifikatu eta politika nahiz gizarte mailan bakartzen saiatu dira.

Zalantzarik gabe, Lizarra-Garaziren aurkako eraso latz horrek bere mezua azaldu eta hedatzeko ahaleginak, eta bere aldekoen artean abiatutako lankidetza prozesuak eragotzi ditu. ETAk iragarritako aldebateko distentsio epearen amaiak kanpoko zailtasunak areagotu egin ditu; ibilbide, proiektu eta lan egiteko era oso desberdinak dituzten erakundeen arteko harremanak eragiten dituen barne-zailtasunak erantsi behar dizkiogu horri. Baina, era berean, zailtasun horiek prozesuan gertatzen diren oztopoak ulertzeko lagungarri dira eta elkarrekin egindako urratsen balioa ere handitzen dute.

Hori guztia dela medio, agiri hau sinatzen dugun erakunde sindikalok Lizarra-Garaziko adierazpenean esandakoari eusten diogu, eta eutsi ere han agertutako konponbide demokratiko prozesua garatzeko konpromisoari. Beharrezkoa deritzogu, gainera, indar abertzaleek espazio demokratiko bat finkatzeko ahaleginari, baita herritarren atxikimenduan oinarrituko den burujabetza-proiektua landu eta zehazteari.

Beraz, gure ardurari dagokionez, manifestu hau sinatzen dugun sindikatuok beharrezko ikusten dugu hutsegiteak zuzendu eta prozesuaren taxutze sozialean agertzen diren hutsuneak osatzea. Gure aburuz, akordio eta proiektu politiko-instituzionalei eman zaien erabateko lehentasunak eduki sozialak lausotu egin ditu, eta erakunde sindikalak, beste talde batzuk bezalatsu, aski bazterturik utzi ditu, proiektu eta akordio haiekiko bigarren mailako edo laguntzaile huts bihurtuz. Agian erakunde sindikalok ez gara behar besteko kemenez estrategia autonomoa garatzeko gauza izan, hots, ordezkatzen ditugun kolektiboen ikuspegia, interesak eta lehentasunak argi islatzen dituen estrategia, baita gatazka politikoaren konponbideari eta aukera instituzionalen taxutze sozialari dagokionez ere.

Izan ere, taxutze sozial hau ezinbestekoa da, euskal gatazkaren konponbide demokratikoak eta burujabetza-egitasmoak aurrez-aurre aurkitzen dituzten zailtasunak eta aurkako jarrerak gainditzeko bide bakarra baitago: gizartearen gehiengoaren atxikimendua eta konpromisoa erakartzea.

Horregatik guztiagatik, 2000 urteko Aberri Eguna dela-eta, ELA, LAB, EHNE, ELB, ESK, STEE/EILAS eta HIRU erakunde sindikalok honako puntuak adierazi nahi ditugu:

- Euskal Herri burujabean justizia eta elkartasunezko gizartea eraikitzeko konpromisoa berretsi egin nahi dugu, eta dei egiten diegu gure erakundeak osatzen dituzten emakume zein gizonei, baita langile guztiei lantegi hortan protagonista izan daitezen.
- Helburuok lortzearren lankidetza sindikala sakontzeko asmoa dugu, iritzi desberdinak gainditzu eta prozesuan ager litezkeen arazoak konponduz; gauza bera eskatzen diegu Lizarra-Garazirekin konpromisoa hartu duten indarrei.
- Lizarra-Garaziko adierazpenarekiko atxikimenduari eusten diogu, euskal gatazkaren konponbide demokratikoa lortzeko eta Euskal Herrian elkarbizitza baketsu eta demokratikoa ezartzeko bide den aldetik.
- Halaber, gure afiliatuei eta langile guztiei dei egiten diegu Udalbiltzak eta Iparraldeko alderdi politikoek Aberri Egunerako luzatu dituzten deialdi bateratuetara bil daitezen.

**GORA EUSKADI ASKATUTA!**

*Euskal Herrian, 2000ko apirilaren 19an*

*Erakunde sozial eta politikoei dagokie prozesuan beharrezko den perspektibari eustea*

*Ezin da ibilitako bidea ahaztu; egindako urrats garrantzitsuak aintzat hartu beharra dago*

*Euskal Herri burujabean justizia eta elkartasunezko gizartea eraikitzeko konpromisoa berresten dugu*

Agiria Documento

# MANIFIESTO SINDICAL

# Aberri Eguna 2000

La celebración de un nuevo Aberri Eguna constituye para las organizaciones sindicales ELA, LAB, EHNE, ELB, ESK, STEE/EILAS e HIRU ocasión de ratificar el compromiso con el desarrollo de nuestra identidad como pueblo en los distintos órdenes –político, institucional, cultural, social, económico-, y de exigir una vez más nuestro reconocimiento como sujeto político pleno con derecho a decidir libremente su marco institucional. Cada Aberri Eguna nos exige, por otra parte, examinar la coyuntura en que se celebra, analizar los elementos claves del momento y ajustar, en su caso, nuestras líneas de actuación a la mejor consecución de aquellos objetivos.

Es claro que la coyuntura en la que este Aberri Eguna se celebra difiere de la de hace un año. Con ocasión del Aberri Eguna de 1999 hablábamos de una coyuntura que presentaba "elementos nuevos y esperanzadores", de los que eran exponentes realidades como la de que fuerzas tanto tiempo distantes y hasta enfrentadas hubieran empezado a dialogar y a cerrar acuerdos, se trabajara en la formulación de una estrategia alternativa a un ciclo político agotado y Lizarra-Garazi se hubiera constituido para una gran parte de nuestra sociedad en el referente de la superación de una fase marcada por la resistencia o el conformismo. El establecimiento por ETA de un alto el fuego unilateral e indefinido alimentaba la esperanza de la sociedad vasca y aportaba condiciones favorables para el desarrollo de los procesos iniciados en torno a la declaración de Lizarra-Garazi.

Junto a estas constataciones positivas, hacíamos mención de la cerrazón de los estados y las fuerzas centralistas, de la incapacidad de adaptar sus respuestas a los nuevos planteamientos y de su empeño en crispar, dividir y enfrentar a la sociedad vasca.

Un año más tarde la coyuntura presenta elementos menos positivos: Los estados y las fuerzas centralistas no sólo siguen cerrados a las propuestas de diálogo y búsqueda de soluciones democráticas, sino que arrecian en sus ataques contra quienes las promueven, mientras intensifican su apuesta por las vías represivas y la crispación social; una expresión especialmente grave de esta apuesta es la política penitenciaria que, contra toda legalidad y humanidad, se sigue aplicando. Por su parte, las fuerzas comprometidas con la Declaración de Lizarra-Garazi se enfrentan a diferencias y dificultades que ralentizan el proceso iniciado. La ruptura del alto el fuego, junto con la persistencia de otras actuaciones violentas, completa, por último, este escenario problemático.

Aunque estos factores pueden debilitar y hasta quebrar la ilusión de tantas personas y sectores de nuestra sociedad que han confiado en la apertura de un proceso de paz y resolución democrática, corresponde a las organizaciones sociales y políticas asumir la responsabilidad de mantener la perspectiva necesaria en un proceso de esta naturaleza y liderar la reacción de la sociedad frente a las dificultades y los obstáculos. Debemos convertir este momento crucial en oportunidad y ser capaces de articular propuestas de amplia base que, superando los límites del actual escenario, nos sitúen en una nueva dinámica en la que sea determinante la voluntad de las ciudadanas y ciudadanos de Euskal Herria.

No perdamos, con todo, la perspectiva del camino recorrido. Hemos dado pasos muy importantes y debemos saber valorarlos. Mientras en Iparralde la reivindicación de un Departamento propio o de la oficialidad del euskara se va generalizando, en Hegoalde las fuerzas soberanistas han puesto fin a una era de aislamiento e incomunicación que anulaba en gran medida su potencia. Como consecuencia de ello, se han establecido coincidencias y procesos de colaboración –favorecidos, evidentemente, por el escenario de distensión unilateral mantenido durante catorce meses-, se han empezado a compartir líneas de análisis y ámbitos de trabajo y, sobre todo, se ha colocado en el centro del debate el problema político en torno al que gira el conflicto vasco y la propuesta de resolución democrática formulada por la Declaración de Lizarra-Garazi.



*Las dificultades para la resolución del conflicto y la extensión del proyecto soberanista sólo pueden superarse mediante la adhesión y el compromiso de la mayoría social*

La reacción de los estados y las fuerzas inmovilistas ha sido tan negativa como clarificadora. Quienes durante años proclamaron la legitimidad de cualquier proyecto político que se defendiera de forma pacífica y democrática, han sido incapaces de aceptar la invitación al diálogo, han eludido la confrontación democrática de ideas y propuestas y han empeñado buena parte de su actividad política y su ingente poder mediático en ocultar y falsear la propuesta de Lizarra-Garazi y en descalificar y aislar política y socialmente a las fuerzas que la comparten.

No cabe duda de que este implacable acoso a Lizarra-Garazi ha entorpecido la explicación y extensión de su mensaje y ha dificultado los procesos de colaboración iniciados entre sus integrantes. A estas dificultades externas, acentuadas por la finalización del período de distensión que de forma unilateral había declarado ETA, se han unido las dificultades intrínsecas de un proceso que implica la colaboración entre organizaciones con tradiciones, proyectos y formas de funcionamiento muy distintos. Dificultades que si, por una parte, ayudan a entender las diferencias que en el proceso se producen, por otra, añaden mayor valor a los pasos dados en común.

Por todo ello, las organizaciones sindicales firmantes nos reafirmamos en la Declaración de Lizarra-Garazi y revalidamos nuestro compromiso de trabajar por el desarrollo del proceso de resolución democrática que en la misma se propone. Vemos necesario, además, que las fuerzas abertzales avancen en el establecimiento de un espacio democrático y en la formulación y definición de un proyecto soberanista que se legitime por la adhesión de la ciudadanía.

En este sentido y por lo que a nuestra propia responsabilidad afecta, las organizaciones sindicales firmantes debemos ir corrigiendo los errores y subsanando las deficiencias que se aprecian en la caracterización social de este proceso. En nuestra opinión, la prioridad absoluta que se ha dado a los acuerdos y proyectos de carácter político-institucional ha difuminado los contenidos sociales y ha relegado a las organizaciones sindicales, como a otros grupos, a un plano auxiliar y subsidiario de aquellos proyectos y acuerdos. Posiblemente las organizaciones sindicales no hemos sabido desarrollar con vigor suficiente una estrategia autónoma en la que, también en el modelo de resolución del conflicto político y en la caracterización social de las alternativas institucionales, se plasmen con nitidez la visión, los intereses y las prioridades de los colectivos a los que representamos.

Esta caracterización social es, sin embargo, imprescindible, porque las dificultades y resistencias que se oponen a la resolución democrática del conflicto vasco y a la extensión de un proyecto soberanista, sólo van a poder ser superadas si tales procesos son capaces de atraer la adhesión y el compromiso de la mayoría social.

Por todo ello, ante el Aberri Eguna del año 2000 las organizaciones sindicales ELA, LAB, EHNE, ELB, ESK, STEE/EILAS e HIRU:

- Ratificamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad justa y solidaria en una Euskal Herria soberana y animamos a los hombres y mujeres que integran nuestras organizaciones y a las trabajadoras y trabajadores en general a ser protagonistas de esta tarea.
- Nos proponemos reforzar la colaboración sindical por la consecución de estos objetivos, superando las diferencias y resolviendo los problemas que en el proceso se vayan planteando, al tiempo que pedimos lo propio a las fuerzas comprometidas con Lizarra-Garazi.
- Renovamos nuestra adhesión a la Declaración de Lizarra-Garazi como método de resolución democrática del conflicto vasco y vía de establecimiento de una convivencia pacífica y democrática en Euskal Herria.
- Hacemos un llamamiento a nuestras afiliadas y afiliados y a las trabajadoras y trabajadores en general a participar en los actos unitarios convocados para el próximo Aberri Eguna por Udalbiltza y los partidos políticos de Iparralde.

**GORA EUSKADI ASKATUTA!**

*Euskal Herrian, 2000ko apirilaren 19an*

## 28 DE ABRIL, DIA DE RECUERDO Y MOVILIZACION

# Nuestra salud no está en venta

## MOVILIZARSE CONTRA LAS SITUACIONES DE RIESGO



El día 28 de abril el movimiento sindical internacional recuerda a las compañeras y compañeros que han muerto, han sufrido accidentes o han contraído alguna enfermedad en sus puestos de trabajo.

Pero además de recordar a las víctimas del trabajo, las fuerzas que integran la mayoría sindical vasca, ELA, LAB, ESK y STEE/EILAS, llaman a la movilización para combatir las causas de los accidentes y denunciar las responsabilidades que se esconden tras las malas condiciones laborales que sufren miles y miles de personas en Euskal Herria.

Si una muerte, una persona incapacitada o una enfermedad laboral es bastante motivo para nuestra movilización, los datos de la siniestralidad de 1999 deben movernos aún con mayor fuerza y urgencia: 151 personas murieron a consecuencia de accidentes o enfermedades de trabajo en Euskal Herria, y hubo un total de 67.000 siniestros o casos de enfermedades profesionales con baja.

### DATOS INCOMPLETOS

Sin embargo, las estadísticas sólo reflejan la punta del iceberg, y ocultan para la mayoría las muertes, accidentes y enfermedades sufridas por colectivos de trabajadores y trabajadoras autónomas, empleadas de hogar, personas que sobreviven en la economía sumergida, que ni siquiera tienen derecho a que se les reconozca el origen laboral de sus males.

Las cifras tampoco valoran las incapacidades derivadas de las condiciones en que debemos trabajar, a pesar de que algunas, como las lesiones musculo-esqueléticas, ansiedades y depresiones, infartos y trombosis sean ya verdaderas epidemias en los trabajos más duros.

### CAUSAS

Muchos de los accidentes y enfermedades tienen causas muy fácilmente identificables: La precariedad en el empleo, las jornadas excesivas, los infernales ritmos o exigencias de trabajo, las discriminaciones por causa del género, origen... Por no hablar del incumplimiento sistemático por parte de las empresas de las normas de prevención de riesgos laborales.

La pasividad y complicidad culpable de las personas responsables de estas áreas en las diversas administraciones públicas ocultan dichas responsabilidades: no actúan con el rigor y la eficacia precisos; sólo imponen alguna multa que otra, y nunca llevan a juicio a quienes valoran antes su beneficio que la vida y salud de las personas que trabajan en su empresa.

Debemos plantearnos cuáles son las causas que nos hacen perder la salud en cada centro de trabajo. ¿Por qué no se eliminan los riesgos conocidos? ¿Por qué se constituyen servicios de prevención ineficaces? ¿Por qué las mutuas se dedican a reducir las bajas presionando a las personas afectadas, en lugar de hacer prevención?

ELA, junto con el resto de las organizaciones citadas, llama a denunciar las situaciones de riesgo. Debemos movilizarnos dentro y fueras de las empresas, y hacer frente a esta realidad. La salud no se vende por un salario.

---

Gaia Tema...

## ENCUENTRO DE MUJERES SINDICALISTAS

# Hacia la igualdad a través de la negociación colectiva




El pasado 13 de abril 250 mujeres delegadas y militantes de ELA se reunieron en Donostia para analizar la situación de la mujer en el mercado de trabajo e intentar definir y concretar estrategias que pongan coto a la feminización de la precariedad y la pobreza. Esta jornada es continuación del primer encuentro de mujeres sindicalistas celebrado el 8 de marzo de 1999, y se encuadra dentro de las actividades organizadas por ELA dentro de la Marcha Mundial de las Mujeres del año 2000.

A lo largo de todo el día, las sindicalistas trabajaron en grupos un informe sobre la discriminación salarial y se apuntaron posibles soluciones. En el debate posterior se destacó la importancia que debe cobrar la negociación colectiva en la lucha por la igualdad y, en consecuencia, la necesidad de que haya más mujeres negociando convenios con las 'gafas antidiscriminatorias' puestas. La formación y concienciación en clave de género de mujeres y hombres de ELA es vital para la auténtica revolución social que la lucha por la igualdad real supone.

En el encuentro se realizó también una implacable crítica del empleo a tiempo parcial como supuesta solución a la problemática de la mujer trabajadora, y se propuso como alternativa la reducción de jornada para todos/as, la creación de empleo de calidad y la apuesta por servicios sociales públicos.

La responsable del Area de Igualdad de Oportunidades, Begoña Diez de Ulzurrun, animó a las presentes a reunirse, debatir y crear estrategias a nivel comarcal, y a mantener contactos con grupos de mujeres para socializar las problemáticas y las soluciones.

Algunas ideas destacadas en el debate para superar la actual situación fueron: educar en la igualdad; las mujeres deben ser motores del cambio; hay que estar en los comités de empresas y, a través de la negociación colectiva, luchar por la igualdad; formación para promocionar en las empresas; corresponsabilidad de las tareas del hogar y la familia; valoración y definición objetiva de los puestos de trabajo; medidas de acción positiva; cambios legislativos...

---

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 424 33 00
Fax 94 424 36 54

Dep. legal BI-199-00

**Franqueo concertado n.° 08/207**